2025 - 12 08/10/2025
Akta/Acta
OSOKO BILKURAKO AKTEN LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE PLENO

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/campezo/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO
C0144708b018080a22b07e90690a0a1eS

**KANPEZUKO UDALA**
AYUNTAMIENTO DE CAMPEZO

**Saio zk. / Nº sesión:** 8/2025

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Dokumentua:** | Akta | **Documento:** | Acta |
| **Kide anitzeko organoa:** | Osoko Bilkura | **Órgano colegiado:** | Pleno |
| **Izaera:** | Osoko Bilkura Ohiko | **Carácter:** | Ordinaria |
| **Zerbitzua:** | Idazkaritza | **Servicio:** | Secretaría |
| **Data:** | 2025/09/02 | **Fecha:** | 02/09/2025 |
| **Ordua:** | 19:00:00 | **Hora:** | 19:00:00 |

**Bertaratuak** / *Asistentes*

| **Izen-abizenak** *Nombre y apellidos* | **Kargua** *Cargo* | **Bertaratu da** *Asiste* | **Talde politikoa***Grupo político* |
|---|---|---|---|
| IBERNALO BASTERRA TXASKO | Alkate / Alcaldesa | Bai / Sí | KAIXO |
| EDUARDO RUIZ DE LOIZAGA SANZ | Zinegotzi / Concejal | Bai / Sí | KAIXO |
| MIRYAM CANDIDA QUINTANA URREA | Zinegotzia / Concejala | Bai / Sí | KAIXO |
| IONE GARCIA DE ACILU DIAZ DE ALDA | Zinegotzia / Concejala | Bai / Sí | KAIXO |
| MANUEL MUÑOZ MORENTIN | Zinegotzi / Concejal | Bai / Sí | KAIXO |
| JAVIER LOPEZ DE LUZURIAGA GARCIA | Zinegotzi / Concejal | Bai / Sí | KAIXO |
| ESTEBAN GOMEZ ECHAGOYEN | Zinegotzi / Concejal | Ez / No | KAIXO |
| JUAN JOSE GARCIA DE ACILU PEREZ | Zinegotzi / Concejal | Bai / Sí | EAJ-PNV |
| LUCIA ELORZA LORENZO | Zinegotzia / Concejala | Bai / Sí | EAJ-PNV |
| IKER URBINA FERNANDEZ | / Secretario Interino | Bai / Sí | |

**UDALBATZAK 2025EKO IRAILAREN 2AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

Santikurutze Kanpezun, Kanpezuko Udaletxeko bilkura-aretoan, 2025eko irailaaren biko arratsaldeko zazpietan bildu dira lehen deialdian, aipatzen diren zinegotziak Osoko Bilkuraren ohiko bilkura egiteko, Alkate andrea buru dela, Ibernalo

**ACTA DE SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN CELEBRADA EL DÍA 2 DE SEPTIEMBRE DE 2025**

En Santa Cruz de Campezo, en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial del Ilustre Ayuntamiento de Campezo, siendo las 19:00 horas del 2 de septiembre de 2025, se reunieron en primera convocatoria, y a los efectos de celebrar sesión ordinaria del Pleno las Concejales y



| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
|---|---|---|
| IBERNALO BASTERRA TXASKO (VºBº) | Alkate / Alcaldesa | 08/10/2025 13:24 |
| IKER URBINA FERNANDEZ | Secretario Interino | 08/10/2025 13:31 |

2025 - 12 08/10/2025
Akta/Acta
OSOKO BILKURAKO AKTEN LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE PLENO
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/campezo/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO
C0144708b018080a22b07e90690a0a1eS



Basterra Txasko, bitarteko idazkari kontu-hartzailea bertan dela.

Concejales anteriormente enunciados, bajo la presidenta de la Sr. Alcaldesa Dña. Ibernalo Basterra Txasko, con asistencia del Secretario-Interventor interino.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.c) artikuluarekin eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 90.artikuluarekin bat etorriz, beharrezkoa den quoruma dagoela egiaztatu da, eta ondoren gai-zerrendan jasotako gaiak aztertzeari ekin zaio.

Se procede a la comprobación de la existencia de quórum de asistencia precisa para que se pueda iniciar, de acuerdo con los artículo 46.2.c) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local y 90 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, pasándose a continuación a despachar los asuntos incluidos en el orden del día.

**1.-Aurreko bilkurako aktak onartzea**

Alkateak hartu du hitza, eta, lehendabizi galdetu du ea oharrik dagoen 2025eko uztailaren 15eko ohiko osoko bilkuraren aktari buruz; oharrik ez dagoenez, aho batez onartu da.

Bigarrenik, Alkateak galdetu du saioan egon ziren zinegotziei- Basterra Txasko and., Quintana Urrea and., López de Luzuriaga García jn., Ruiz de Loizaga Sanz jn., eta Elorza Lorenzo and.ea oharrik dagoen 2025eko uztailaren 18ko ez-ohiko osoko bilkuraren aktari buruz; oharrik ez dagoenez, aho batez onartu da.

**1.-Aprobación de actas de la sesión anterior**

La Alcaldesa toma la palabra para preguntar en primer lugar si existen observaciones sobre el acta de la sesión ordinaria celebrada el día 15 de julio de 2025; no existiendo observaciones se aprueba por unanimidad.

En segundo lugar, la Alcaldesa pregunta si existen observaciones osbre el acta de la sesión extraordinaria celebrada el día 18 de junio de 2025; no existiendo observaciones por los y las concejales presentes que asistieron a la sesión- Sra. Basterra Txasko, Sra. Quintana Urrea, Sr. López de Luzuriaga García, Sr. Ruiz de Loizaga Sanz y Sra. Elorza Lorenzo-; no existiendo observaciones se aprueba por unanimidad.

**2.-Dekretuak**

Alkateak aurreko saiotik onartutako dekretuen berri ematen du- 181. dekretutik, 224.dekretura-. Oharrik ez dago.

**2.-Decretos**

La Alcaldesa da cuenta de los decretos aprobados desde la sesion anterior- del decreto nº 181 al decreto nº 224-. No existen observaciones.

**3.-Udaletxearen handitze obren 4. obra-ziurtagiriaren onarpena**

**3.-Aprobación 4ª certificación contrato obras ampliación de la casa consistorial**



| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
| --- | --- | --- |
| IBERNALO BASTERRA TXASKO (VºBº) | Alkate / Alcaldesa | 08/10/2025 13:24 |
| IKER URBINA FERNANDEZ | Secretario Interino | 08/10/2025 13:31 |

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/campezo/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO
C0144708b018080a22b07e90690a0a1eS

**KANPEZUKO UDALA**
AYUNTAMIENTO DE CAMPEZO

Alkateak hitza hartzen du egindako proposamena bozkatzeko proposatuz honako terminoetan:

La Alcaldesa toma la palabra para someter a votación la propuesta de acuerdo en los siguientes términos:

Ikusi da 2025eko otsailaren 18an udaletxea handitzeko eta erabarritzeko obretarako osoko bilkuran Cuvialde obras y servicios S.L. merkataritza-sozietarearen alde egindako kontratazioa.

Vista la contratación llevada a cabo el 18 de febrero de 2025, en sesión plenaria, para las obras de ampliación y reforma de la casa consistorial, a favor de la mercantil Cuvialde obras y servicios S.L.

Ikusi da laugarren obra-ziurtagiria, 2025eko uztailekoa, 97.729,34 €.

Vista la 4ª certificación de obra emitida, correspondiente a julio de 2025 por importe de 97.729,34 €.

Ikusi da, Obra-zuzendaritzak uztailaren 22an emanadako oniritziak.

Visto el visto bueno emitido por la dirección facultativa el 22 de julio.

Kontuan izanda, Kanpezuko udalak legez bere gain hartutako betebeharrak.

Considerando las obligaciones legalmente contraídas por el Ayuntamiento de Campezo.

Kontuan izanda 2025. urteko Udal-aurrekontua betearazteko oinarrien 16. eta 27. artikuluetan ezarritakoa.

Considerando lo establecido en los artículos 16 y 27 de las Bases de ejecución del Presupuesto municipal 2025.

TAOALen 21. artikuluak emandako ahalamenen arabera, Osoko-bilkurari bidaltzen diot honako AKORDIO PROPOSAMENA

En virtud de las facultades otorgadas por el artículo 21 LRBRL, elevo al Pleno la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO

**BAKARRA**.- Onartzea 4. obra-ziurtagiria, 02500328 faktura, 97.729,34 eurotakoa, Cuvialde S.L.-k 2025ko uztailaren 31an bidalitakoa, eta bere ordainketa agintzea.

**ÚNICO.-** Aprobar la 4ª certificación de obra, la factura 2500328 por importe de 97.729,34 € emitida el 31 de julio de 2025 por Cuvialde S.L. y ordenar el pago de la misma.

Proposamena aho batez onartzen da

La propuesta se aprueba por unanimidad

### 4.-2024 ekitaldiko kontu orokorraren onarpena

### 4.-Aprobación cuenta general del ejercicio 2024

Alkateak hitza hartzen du egindako proposamena bozkatzeko proposatuz honako terminoetan:

La Alcaldesa toma la palabra para someter a votación la propuesta de acuerdo en los siguientes términos:

Kontuan izanda, Kontu-emaileek, behar bezala baimenduta, dagokien ekitaldiaren hurrengoaren kontu orokorrak eman dizkiote kontu-hartzailetzari edo kontabilitate-funtzioa esleituta duen toki-

Considerando que los respectivos cuentadantes han rendido, debidamente autorizadas, las cuentas generales del ejercicio inmediato siguiente al que corresondan (Regla 52.2 Decreto Foral 56/2015, de



| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
|---|---|---|
| IBERNALO BASTERRA TXASKO (VºBº) | Alkate / Alcaldesa | 08/10/2025 13:24 |
| IKER URBINA FERNANDEZ | Secretario Interino | 08/10/2025 13:31 |

2025 - 12
08/10/2025
Akta/Acta
OSOKO BILKURAKO AKTEN LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE PLENO
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/campezo/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO
C0144708b018080a22b07e90690a0a1eS



erakundeko organoari (56/2015 Foru Dekretua, azaroaren 3koa, Arabako Foru Aldundiarena, Arabako toki-erakundeen kontabilitatearen esparru arautzailea onartzen duen- aurrerantzean 56/2015 FD-), 56/2015 FD 47.3 arauak aipatzen duen dokumentazioa osagarriarekin batera (56/2015 FD 53.1 araua).

3 de noviembre de la Diputación Foral de Álava por el que se aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales de Álava- en adeltante DF 56/2025-), acompañadas de la documentación complementaria a que se refiere la Regla 47.3 DF 56/2015, a la Intervención u órgano de la entidad local que tenga atribuida la función de contabilidad (Regla 53.1 DF 56/2015).

Kontuan izanda, Kontu-hartzaileak 2024ko ekitaldiari dagokion kontua osatu duela.

Considerando que el Interventor ha formado la cuenta correspondiente al ejercicio 2024.

Ikusi da, 2024ko ekitaldiari dagokion kontu orokorra, toki-erakundearena eta Kanpezuko Ikastetxeen Partzuergoarena osatuta, eta 56/2015 FDan aurreikusitako dokumentazioarekin batera.

Vista la Cuenta General correspondiente al ejercicio 2024; integrada por la de la propia Entidad Local y de la del Consorcio de los Centros Escolares de Campezo, acompañadas de la documentación prevista en el DF 56/2015.

Ikusi dira kontuak justifikatzen dituzten dokumentuak, eman direnak eta kontabilitate-liburuekin eta gainerako dokumentu-aurrekariekin ados daudenak, 56/2015 FD xedatutakoaren arabera, eta aipatutako legeriak aipatzen dituen alderdiei buruzko informazioa hobeto emateko komenigarritzat jo diren aurrekari guztiak ikusi eta kontsultatu dira.

Vistos los documentos que justifican las correspondientes cuentas, que se han rendido y están conformes con los libros de contabilidad y el resto de los antecedentes documentales, de conformidad con lo que dispone la en el DF 56/2015, teniendo a la vista y consultados todos los antecedentes que se han creído conveniente para mejor informar respecto de los extremos a que hace referencia la legislación citada.

Kontuan hartuta, 56/2015 FDren 51.4 arauaren arabera, kontu orokorra onartzea funtsezko egintza dela kanpoko kontrol-organoek hura fiskalizatzeko, eta ez duela bertan jasotako jarduerekiko adostasunik behar, eta ez duela horiengatiko erantzukizunik sortzen.

Considerando que, de conformidad con la Regla 51.4 DF 56/2015, la aprobación de la cuenta general es un acto esencial para la fiscalización de ésta por los órganos de control externo, que no requiere la conformidad con las actuaciones reflejadas en ella, ni genera responsabilidad por razón de las mismas.

Ikusi da, udal kontu-hartzailetzak egindako txostena.

Visto el informe emitido por la Intervención municipal.

Azaldutako guztiagatik, Kontuen Batzorde Bereziari aurkezten zaio honako **ERABAKI-PROPOSAMENA**

Por todo lo expuesto, se somete a la Comisión Especial de Cuentas la siguiente **PROPUESTA DE ACUERDO**

**LEHENENGOA.-** 2024ko ekitaldiko kontu orokorra osatzen duten kontuen eta egoeren aldeko txostena egitea, bia eta haien eranskinena ere. Arabako Foru ALdundiaren azaroaren 3ko 56/2015 Foru Dekretuak, Arabako toki-erakundeen kontabilitatearen esparru arautzailea onartzen

**PRIMERO.-** Informar favorablemente las cuentas y estados que componen la Cuenta General correspondiente al ejercicio 2024, así como sus anexos, presentada según dispone el Decreto Foral 56/2015, de 3 de noviembre, de la Diputación Foral de álava por el que se aprueba el marco regulatorio



| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
| --- | --- | --- |
| IBERNALO BASTERRA TXASKO (VºBº) | Alkate / Alcaldesa | 08/10/2025 13:24 |
| IKER URBINA FERNANDEZ | Secretario Interino | 08/10/2025 13:31 |

2025 - 12
08/10/2025
Akta/Acta
OSOKO BILKURAKO AKTEN LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE PLENO
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/campezo/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO
C0144708b018080a22b07e90690a0a1eS

duenak, xedatutakoaren arabera aurkeztu da, eta erakundearen beraren kontua eta Kanpezuko Ikastetxeen Partzuergoarena integratuta daude.

contable de las entidades locales de Álava, y que está integrada la cuenta de la propia Entidad y la del Consorcio de los Centros Escolares de Campezo.

**BIGARRENA.-** Arabako Aldizkari Ofizialean ediktu bidez jendaurrean jartzea, hamabost egunez (56/2015 FD, 51.2 araua). Epe horretan, interesdunek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak, eragozpenak eta oharrak aurkeztu ahal izango dituzte.

**SEGUNDO.-** Que se exponga al público mediante edicto en el Boletín Oficial de Álava por plazo de quince días (Regla 51.2 DF 56/2015) durante los cuales las personas interesadas podrán presentar las reclamaciones, reparos y observaciones que estimen oportunas.

Proposamena onartu da, aldeko 6 botorekin (Basterra Txasko andrea, Muñoz Morentin jauna, Ruiz de Loizaga Sanz jauna, Quintana Urrea andrea, Garcia de Acilu Diaz de Alda andrea, Lopez de Luzuriaga Garcia jauna, Gomez Echagoyen jauna) eta 2 abstentziorekin (Garcia de Acilu Perez jauna eta Elorza Lorenzo andrea).

Se aprueba la propuesta con 6 votos favorables (Sra. Basterra Txasko, Sr.Muñoz Morentin, Sr. Ruiz de Loizaga Sanz, Sra. Quintana Urrea, Sra. Garcia de Acilu Diaz de Alda, Sr. Lopez de Luzuriaga Garcia, ) y 2 abstenciones (Sr. Garcia de Acilu Perez y Sra. Elorza Lorenzo).

**5.-Udal eraikinen garbitzeko zerbitzu kontratua esleitzen duen alkatetza ebazpenaren berrespena**

**5.-ratificación de la resolución de alcaldía adjudicando el contrato de servicio de limpieza de edificios municipales**

Alkateak hitza hartzen du egindako proposamena bozkatzeko proposatuz honako terminoetan:

La Alcaldesa toma la palabra para someter a votación la propuesta de acuerdo en los siguientes términos:

Ikusi da, 2025eko uztailaren 27an, Kanpezuko Udaleko osoko bilkurak udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren esleipenerako espedientea eta klausula tekniko eta administratiboen agiria onartu zituela.

Visto que con fecha 27 de junio de 2025 el Pleno del Ayuntamiento de Campezo aprobó expediente y pliego de cláusulas técnicas y administrativas para la licitación de la prestación del servicio de limpieza de edificios públicos.

a Lizitazioaren ondoren, enpresa bakarra aurkeztu zen, Limpiezas Abando S.L. izan zen eta, 2025ko uztailaren 14an kontratazio mahaiak egindako aktaren arabera honako puntuazioa lortu zuen:

Visto que tras la correspondiente licitación concurrió una empresa, LIMPIEZAS ABANDO S.L obteniendo la siguiente puntuación según consta en el acta de la mesa de contratación de 14 de julio de 2025:

| Izen soziala/ Razón Social | PUNTUAZIOA/PUNTUACIÓN | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Eskaintza ekonomikoa BEZik gabe/ Oferta económica IVA excluido | Memoria | Indarkeri protokoloa/Protocolo de violencia | TOTAL |



| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
|---|---|---|
| IBERNALO BASTERRA TXASKO (VºBº) | Alkate / Alcaldesa | 08/10/2025 13:24 |
| IKER URBINA FERNANDEZ | Secretario Interino | 08/10/2025 13:31 |

2025 - 12 08/10/2025
Akta/Acta
OSOKO BILKURAKO AKTEN LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE PLENO
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/campezo/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO
C0144708b018080a22b07e90690a0a1eS

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| LIMPIEZAS ABANDO S.L. | 80 puntu/puntos | 9 puntu/puntos | 5 puntu/puntos | 94 puntu/ puntos |

Ikusi da, AKPAren 14.4 klausularen arabera, klausula horretan ezarritako dokumentazioa eskatu zitzaiola LIMPIEZAS ABANDO S.L.ri, eta emandako eperako aurkeztu zuela dokumentazio hori, eta 3.593,16 euroko behin betiko bermea eratu zela, berme-dokumentua aurkeztuta

Visto que en virtud de la cláusula 14.4. de los PCAP se procedió a requerir a LIMPIEZAS ABANDO S.L. la documentación establecida en la referida cláusula, habiéndose aportado la misma por el plazo concedido y habiéndose constituido la garantía de 3.593,16 €, mediante la presentación de aval.

Ikusi da, 2025ko abuztuaren 6an Alkatetza ebazpenaren bitartez kontratua LIMPIEZAS ABANDO S.L. esleitu zitzaiola eta ebazpenean ezartzen zela hurrengo osoko bilkuran berretsi behar zela.

Visto que con fecha 6 de agosto de 2025 por resolución de Alcaldía se procedió a adjudicar el contrato a LIMPIEZAS ABANDO S.L., estableciéndose en la misma la necesidad de ratificar su contenido en la siguiente sesión plenaria.

Kontuan hartu da, AKPAren 14.6 klausulak ezartzen duela kontratazio-organoak dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan esleituko duela kontratua.

Considerando que la cláusula 14.6 de los PCAP establece que el órgano de contratación adjudicará el contrato dentro de los cinco días hábiles siguientes a la recepción de la documentación.

Kontuan hartu da, Administrazio-klausula berezien agirien 17.1 klausulak ezartzen duenez, esleipen-ebazpena hautagaiei eta lizitatzaileei jakinarazi beharko zaie.

Considerando que la cláusula 17.1 de los PCAP establece que la resolución de adjudicación deberá ser notificada a las personas candidatas y licitadoras.

Kontuan hartu da, AKPAren 18.1 klausulak ezartzen duenez, kontratazio-organoak egindako adjudikazioaren bidez burutuko da kontratua, eta administrazio-dokumentu batean formalizatuko da hamabost egun baliodunko epean, adjudikazioa jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Considerando que la cláusula 18.1 de los PCAP establece que el contrato se perfeccionará mediante la adjudicación realizada por el órgano de contratación, formalizándose en documento administrativo dentro del plazo de quince días hábiles a contar desde el día siguiente al de la notificación de la adjudicación del mismo

TAOALen 21. artikuluak emandako ahalmenetan oinarrituta, osoko bilkurari bideratzen diot honako **AKORDIO PROPOSAMENA**

En base a las facultades otorgadas por el artículo 21 LRBRL, elevo al Pleno la siguiente **PROPUESTA DE ACUERDO**

**BAKARRA.-** Berrestea, bere termino guztietan, udal eraikinak garbitzeko zerbitzu kontratua LIMPIEZAS ABANDO S.L. enpresari esleitzen zion 2025ko abuztuaren 6an emandako Alkatetza ebazpena.

**ÚNICO.-** Ratificar en todos sus términos la resolución de Alcaldía de 6 de agosto de 2025 adjudicando el contrato del servicio de limpieza de edificios municipales a la empresa LIMPIEZAS ABANDO S.L.



| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
|---|---|---|
| IBERNALO BASTERRA TXASKO (VºBº) | Alkate / Alcaldesa | 08/10/2025 13:24 |
| IKER URBINA FERNANDEZ | Secretario Interino | 08/10/2025 13:31 |

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/campezo/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO
C0144708b018080a22b07e90690a0a1eS



Proposamena aho batez onartzen da

La propuesta se aprueba por unanimidad

**6.-Erabilera eta eremu publikoak eta udal-ondasunak arautzen dituen ordenantza indargabetzea**

**6.-Derogación de la ordenanza reguladora de usos y espacios públicos y bienes municipales**

Alkateak hitza hartzen du egindako proposamena bozkatzeko proposatuz honako terminoetan:

La Alcaldesa toma la palabra para someter a votación la propuesta de acuerdo en los siguientes términos:

Erabilera eta espazio publikoak eta udal-ondasunak arautzen dituen indarreko ordenantzak Kultur Etxearen eta udal-pilotalekuaren prezio publikoak arautzen ditu.

Visto que la vigente ordenanza reguladora de usos y espacios públicos y bienes municipales regula los precios públicos de la Kultur Etxea y del frontón municipal.

2025eko urtarrilaren 20ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez, udal-pilotalekuaren erabilera arautzen duen ordenantza aldatzea onartu zen, eta pilotalekua erabiltzeagatiko prezio publikoak ezarri ziren.

Visto que por acuerdo de pleno de 20 de enero de 2025 se procedió a aprobar modificación de la ordenanza reguladora de la utilización del frontón municipal, estableciéndose los precios públicos por uso del frontón.

2025eko martxoaren 18ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez, kultur etxearen eta hari lotutako jardueren funtzionamendua arautzen duen ordenantza onartu zen. Ordenantza horren eranskinean, kultur etxea erabiltzeagatiko prezio publikoak ezartzen dira.

Visto que por acuerdo de pleno de 18 de marzo de 2025 se procedió a aprobar la ordenanza reguladora del funcionamiento de la kultur etxea y las actividades a ella vinculada en cuyo anexo se establecen los precios públicos por uso de la kultur etxea.

Ikusi da bitarte idazkariak egindako txostena.

Visto el informe emitido por el secretario interino.

2025ean onartutako ordenantza horiek kontuan hartuta, erabilera eta espazio publikoen eta udal-ondasunen ordenantzak zentzua galdu du.

Considerando que dadas las referidas ordenanzas aprobadas en 2025 la ordenanza de usos y espacios públicos y bienes municipales ha perdido sentido.

Alkateak Udalbatzari bideratzen dio honako **AKORDIOA PROPOSAMENA**

La Alcaldesa eleva al Pleno de la Corporación la siguiente **PROPUESTA DE ACUERDO**

**LEHENENGOA.-** Hasierako onarpena ematea erabilera eta eremu publikoak eta udal-ondasunak arautzen dituen ordenantza indargabetzeari.

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente la derogación de la ordenanza reguladora de usos y espacios públicos y bienes municipales.

**BIGARRENA.-** Erabaki hau eta Ordenantza jendaurrean jartzea, alegazioak aurkeztu ahal izateko, hogeita hamar eguneko epean, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko den iragarki

**SEGUNDO.-** Exponer al público el presente acuerdo así como la Ordenanza, al objeto de presentación de alegaciones, durante el plazo de treinta días mediante anuncio a publicar en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y en



| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
|---|---|---|
| IBERNALO BASTERRA TXASKO (VºBº) | Alkate / Alcaldesa | 08/10/2025 13:24 |
| IKER URBINA FERNANDEZ | Secretario Interino | 08/10/2025 13:31 |

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/campezo/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO
C0144708b018080a22b07e90690a0a1eS

**KANPEZUKO UDALA**
AYUNTAMIENTO DE CAMPEZO

baten bidez. Epe hori igaro eta alegaziorik aurkezten ez bada, Ordenantza behin betiko onartu dela ulertuko da.

el tablón de anuncios de la corporación. En caso de que transcurrido dicho plazo no se presente alegación alguna, la Ordenanza se entenderá definitivamente aprobada.

Proposamena aho batez onartzen da

La propuesta se aprueba por unanimidad

**7.-Esleitu gabetzat hartu udal-igerilekuen instalazioak hobetzeko obren lizitazioa**

**7.-Declarar desierta la licitación de las obras de mejora de las instalaciones de las piscinas municipales**

Alkateak hitza hartzen du egindako proposamena bozkatzeko proposatuz honako terminoetan:

La Alcaldesa toma la palabra para someter a votación la propuesta de acuerdo en los siguientes términos:

2025eko maiatzaren 29an, Kanpezuko Udalaren Osoko Bilkurrak erabaki zuen udal-igerileuketako instalazioak hobetzeko obrak egiteko kontratuaren kontratazio-espedientea onartu zela ikusi da.

Visto que con fecha 29 de mayo de 2025 el Pleno del Ayuntamiento de Campezo acordó la aprobación del expediente de contratación del contrato de ejecución de las obras de mejora de las instalaciones de las piscinas municipales.

2025eko ekainaren 23an, kontratazio-mahaia gutun-azal bakarra irekitzeko bildu zen, eta egiaztatu zen ez zegoela enprea lizitatzailerik ikusi da.

Visto que el 23 de junio de 2025 reunida la mesa de contratación para proceder a la apertura del sobre único se constata la inexistencia de empresas licitadoras.

Kontuan hartu da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 150.3 artikuluan ezarritakoa.

Considerando lo establecido en el artículo 150.3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público

TAOALen 21.artikuluak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, osoko bilkurari aurkezten diot udal igerilekuen instalazioak hobetzeko obren lizitazioa egiteko **ERABAKI PROPOSAMENA**

En virtud de las facultades otorgadas en el artículo 21 LRBRL, elevo al pleno la siguiente **PROPUESTA DE ACUERDO**

**LEHENENGOA.-** Udal-igerilekuen instalazioak hobetzeko obrak kontratatzeko lizitazioa bete gabe geratu dela adieraztea.

**PRIMERO.-** Declarar desierta la licitación para la contratación de las obras de mejora de las instalaciones de las piscinas municipales

**BIGARRENA.-** Erabaki hau Euskadiko kontratazio publikoaren plataforman argitaratzea

**SEGUNDO.-** Publicar el presente acuerdo en la plataforma de contratación pública de Euskadi.

Proposamena aho batez onartzen da

La propuesta se aprueba por unanimidad



| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
| --- | --- | --- |
| IBERNALO BASTERRA TXASKO (VºBº) | Alkate / Alcaldesa | 08/10/2025 13:24 |
| IKER URBINA FERNANDEZ | Secretario Interino | 08/10/2025 13:31 |

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/campezo/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO
C0144708b018080a22b07e90690a0a1eS

**KANPEZUKO UDALA**
AYUNTAMIENTO DE CAMPEZO

### 8.-Etxez-etxeko laguntza arautzen duen ordenantzaren moldaketaren hasierako onarpena

Alkateak hitza hartzen du egindako proposamena bozkatzeko proposatuz honako terminoetan:

Ikusita egungo ordenantza 2018ekoa dela.

Arabako Foru Aldundiko Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 8ko 418/2025 Erabakiaren bidez, "*Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen udal-erregelamendua*" onartu zen, Eudeleko Arabako Lurralde Batzordearen aldez aurreko onarpenarekin. Dokumentuaren edukia bat dator izapidetzen ari den aldaketarekin eta indarrean dagoen ordenantza indargatzea behar izatea.

Indarrean dagoen ordenantza Arabako Foru Aldundiak onartutakoaren edukira egokitu behar da.

Alkateak Udalbatzari proposatzen dio honako

**AKORDIOA**

**LEHENENGOA.-** Hasierako onarpena ematea etxez-etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen ordenantza aldatzeko testuari.

**BIGARRENA.-** Erabaki hau eta Ordenantza jendaurrean jartzea, alegazioak aurkeztu ahal izateko, hogeita hamar eguneko epean, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko web-orrialdean eta iragarki-taulan argitaratuko den iragarki baten bidez. Epe hori igaro eta alegaziorik aurkezten ez bada, Ordenantza behin betiko onartu dela ulertuko da.

### 8.-Aprobación inicial modificación ordenanza del Servicio de Ayuda a Domicilio

La Alcaldesa toma la palabra para someter a votación la propuesta de acuerdo en los siguientes términos:

Visto que la actual ordenanza data del año 2018.

Visto que por Acuerdo 418/2025, de 8 de julio del Consejo de Gobierno Foral de la Diputación Foral de Álava, aprobó el documento denominado "*Reglamento municipal regulador del Servicio de Ayuda a Domicilio*", con la aprobación previa de la Comisión Territorial de Álava de Eudel, y cuyo contenido se corresponde con la modificación que se tramita suprimiendo parte de la ordenanza existe.

Considerando que procede adecuar la vigente ordenanza al contenido de la aprobada por la Diputación Foral de Álava.

La Alcaldesa propone al Pleno de la Corporación la adopción del siguiente

**ACUERDO**

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente el texto de modificación de la ordenanza reguladora del servicio de ayuda a domicilio.

**SEGUNDO.-** Exponer al público el presente acuerdo así como la Ordenanza, al objeto de presentación de alegaciones, durante el plazo de treinta días mediante anuncio a publicar en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y en la página web y tablón de anuncios de la corporación. En caso de que transcurrido dicho plazo no se presente alegación alguna, la Ordenanza se entenderá definitivamente aprobada.



| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
|---|---|---|
| IBERNALO BASTERRA TXASKO (VºBº) | Alkate / Alcaldesa | 08/10/2025 13:24 |
| IKER URBINA FERNANDEZ | Secretario Interino | 08/10/2025 13:31 |

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/campezo/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO
C0144708b018080a22b07e90690a0a1eS

**KANPEZUKO UDALA**
AYUNTAMIENTO DE CAMPEZO

Proposamena aho batez onartzen da

La propuesta se aprueba por unanimidad

**9.-Eguneko Arretarako Landa Zentroaren Zerbitzua arautzen duen ordenantzaren aldaketaren hasierako onespena**

**9.-Aprobación inicial modificación ordenanza reguladora del Servicio de Centro Rural de Atención Diurna**

Ikusita egungo ordenantza 2021ekoa dela.

Arabako Foru Aldundiko Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 8ko 418/2025 Erabakiaren bidez, "*Eguneko Arretarako Landa Zentroaren Zerbitzua arautzen duen udal-erregelamendua*" onartu zen, Eudeleko Arabako Lurralde Batzordearen aldez aurreko onarpenarekin. Dokumentuaren edukia bat dator izapidetzen ari den aldaketarekin eta indarrean dagoen ordenantza indargatzea behar izatea.

Indarrean dagoen ordenantza Arabako Foru Aldundiak onartutakoaren edukira egokitu behar da.

Alkateak Udalbatzari proposatzen dio honako

**AKORDIOA**

